

BASQUE GLOBAL INDUSTRY BEKAK 2026 IZEN-EMATEAK

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA: UZTAILAREN 23TIK IRAILAREN 21ERA ARTE

- Basque Global Industry bekak BASQUE TRADE & INVESTMENT, SPRI eta EUSKO JAURLARITZAK bultzatutako programa baten baitan daude, erakunde laguntzaile ezberdinen bitartez kudeatzen dena, eskaintza aukera zabala eta irismen handiagokoa bermatzeko asmoz.
- Basque Global Industry Bekak 2026 programak 5 erakunde laguntzaile ditu (gehienak beste batzuekin lankidetzan). Erakunde horiek dira beken kudeaketa eta tutoretza gauzatuko dutenak eta baita eskaintza egingo dutenak ere, guztira 341 beka eskainiz.
- Beka guztiak, zein erakundek kudeatzen dituen kontuan hartu gabe, eskubide eta betebeharrak berberak dituzte, baita diru-kopuru bera ere, eta aukeraketarako derrigorrezko estandarrak betetzen dituzte (ingeleza menperatzen denaren akreditazioa, aukeraketarako elkarriketak, eskatutako dokumentazioa batzea, etab.)
- Erakunde laguntzaile bakoitzak bere webgunean argitaratzen ditu eskaintzen dituen praktikak.
- **Izena emateko prozedura:**
 - 1. Eskaera bakarra:**

Eskatzaile bakoitzak ERAKUNDE BATEAN BAKARRIK eman ahalko du izena. **Erakunde batean baino gehiagotan izena emanez gero, eskatzailea hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da.**
 - 2. Nola aukeratu izena emateko erakunde laguntzailea:**
 - Eskatzaileak beken eskaintza bateratua eta erakunde kudeatzaileen webguneak aztertu beharko ditu eta gehien interesatzen zaionean izena eman, ikasketak non gauzatu dituen kontuan hartu gabe.
 - Ondoko estekan beken eskaintza bateratua eta erakunde kudeatzaileen webguneak aurkitu daiteke: <https://basquetrade.spri.eus/eu/talentua/basque-global-industry-programa/>
 - 3. Erakunde laguntzailea aukeratutakoan:**
 - Aukeratutako erakunde laguntzailearen webgunean izen-ematea egin ostean, erakunde horren argibideak jarraitu beharko dira izen-emate eta aukeraketa prozesuan zehar.